



SEGURAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II.PLANA



SEGURAKO UDALA

EMAKUNDEk diruz lagunduta



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiatuna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

AURKIBIDEA

1.	ABIAPUNTUA.....	4
2.	MARKO NORMATIBOA ETA EGITURAZKOA.....	5
•	EAEko 4/2005 Berdintasun Legea, otsailaren 18koa:	5
	EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana:	7
3.	PLANA GARATZEKO METODOLOGIA	9
	3.1. Emakumeen ahalduntzea erdigunean duen partaidetza prozesuaren PRINTZIPIOAK:	9
	3.2. Berdintasun Planek bete beharreko BESTE PRINTZIPIO GIDARI batzuk:	11
4.	PLANA GARATZEKO LAN PROZESUA	13
	1. Fasea: LAIATUZ-BERDINTASUNA BULTZATUZ lan-saioak	14
	2. Fasea: PLANAREN LEHEN KONTRASTE ETA KONPROMISOA LANTZEA	16
	3. Fasea: KONPROMISOAK BERRESTEA	16
	4. Fasea: KONTSULTA PUBLIKOA – ONARPENA - AURKEZPENA	16
5.	GOBERNU ONA.....	17
6.	I.go ardatza: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	28
7.	II. ardatza: EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEA.....	37
8.	III. ardatza: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK.....	46
9.	II. BERDINTASUN PLANAREN KUDEAKETA SISTEMA	54
10.	ERANSKINAK.....	55
	SAIL BAKOITZAREN EKINTZA PLANA (Programa bakoitzarena)	56
	EKINTZEN BETETZE MAILAREN EBALUAKETA	57
	NEURRIEN EBALUAZIOA	59
	PROGRAMEN EBALUAZIOA	60

1. ABIAPUNTUA

Segurako Udalak emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko lana egiteko apustua egin du, eta apustu horren erakusgarri gisara, 2015-2018 urte artean aurrera eraman duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I.go Planaren ebaluaketa burutu du. Ebaluaketa honetatik jasotako emaitzetan zein herriko errealitate anitzean oinarrituz, Segurako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plan baten diseinua ere abiatu du. Azken prozesu horretan garatu diren urratsak eta bertatik eraikitako Plana bera jasotzen dira dokumentu honetan.

I. Planaren ebaluaketa lanen bidez, plan honen eraginkortasun eta betetze maila neurtzeaz gain, aurrera begirako lan-ildo nagusiak identifikatzeko ere balio izan du, II. Planaren diseinuan kontuan izan direnak. Horrez gain, II. Planaren diseinurako baliatu den partzaidetza prozesurako ezinbestekoak izan diren aliantzak sortzeko ere balio izan zuen.

Berdintasun Plan batek, berdintasunaren aldeko lana antolatzeko gai edo arlo jakin batzuk barne-hartzen ditu. Arlo horien baitan helburu estrategiko batzuk kokatzen dira, beti ere herriaren eta herritarren errealitate anitz konkretura egokituko direnak. Helburu estrategiko bakoitzaren baitan, berriz, helburu hori lortzeari begirako neurri eta ekintza konkretu batzuk jasotzen dira, zuzenean ekintzara edo esku hartzera pasatu eta lanean jartzera eramaten gaituztenak.

Ondorioz, Berdintasun Planak, nolabait esateko, epe eta leku jakin batean gauzatu beharreko plangintza edo lan egitarau bat lirateke. Ez dugu ahaztu behar tresna gisara ulertu behar direla: berdintasunaren alde garatu behar dugun lana sistematizatzea ahalbidetzen duten herramientak dira.

Oro har, herritar denei zuzentzen zaizkie, emakume zein gizonei, eta Udaleko arlo zein gizarteko eragile guztiei. Izan ere, esparru guztietatik sustatu liteke berdintasunaren aldeko lana.

Dokumentu honetan, II. Plana kokatzen den marko normatiboaz, erabilitako metodologiaz eta garatutako lan-prozesuaz hitz egiten da lehenik. Ondoren, marko normatiboak ezarritako

egitura jarraituaz, Segurako II. Berdintasun Planaren helburu, neurri eta ekintzak biltzen dira, lau ataletan banatuta. Azkenik, II. Plan honen jarraipen eta ebaluazioaz hitz egiten da.

2. MARKO NORMATIBOA ETA EGITURAZKOA

Berdintasun Planak diseinatu ahal izateko, badago egiturazko marko normatibo orokor bat ezartzen duten parametro batzuk. Segurako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana diseinatzen hasteko ere, parametro hauek baliatuko ditugu, ezinbestean (Berdintasun Plan guztiak egokitu behar baitira marko orokor honetara).

Honela, jarraian sakonago azaltzen diren bi parametro nagusi hauek jarraitu dira: batetik, Emakume eta Gizonen arteko Otsailaren 18ko 4/2005 Berdintasun Legea, eta bestetik, Emakundek garatutako EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.

• EAEKO 4/2005 BERDINTASUN LEGEA, OTSAILAREN 18KOA:

Lege honen helburua emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea da, ohiko rolek sexuaren arabera ezartzen dituzten mugekin hautsiz. Horretarako:

(...) emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan herri-aginteen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzen ditu legeak, eta zenbait neurri ere arautzen ditu. Neurrian xedea da emakumeek eta gizonek bizitzaren arlo guztietan aukera eta tratu berdinak izan ditzaten bultzatzea eta bermatzea¹ (...).

Legeak bi estrategia azpimarratzen ditu:

- Batetik, genero ikuspegia txertatzeari buruzko neurriak biltzen ditu, honen bidez posible baita emakume eta gizonek gizartean betetzen dituzten rol edo postuak ezberdinak eta desorekatuak direla ohartzea. Neurri hauek desoreka edo ezberdintasun horiek neutralizatzen bideratuak daude.
- Bestetik, ekintza positiboen inguruko neurriak leudeke, zeinak emakumeek abiapuntuan dituzten desabantailak orekatzeko estrategia bat osatuko luketen.

¹ Iturria: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf>

Estrategia edo neurri multzo hau, aukera berdintasuna bere baitan oreka hori sortzeko gai ez denean baliatuko litzateke.

Udalaren eskumen eta funtzioak:

Lege honek, bestetik, berdintasunaren alorrean administrazio-maila bakoitzak bete beharreko zereginak zehazki definitzen ditu, eta horrez gain, herri botere guztiak behartzen ditu benetako berdintasuna lortzeko baldintzak ezarri eta oztupoak kentzera, horretarako beharrezkoak diren politika eta ekintzak sustatuz.

4/2005 Legeak honako zereginak esleitzen dizkio Toki Administrazioari:

- Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.
- Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- Toki-eremuan programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta Foru-Aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
- Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonak bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.
- Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak egitea.
- Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, baita bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.
- Emakumeei eta gizonari bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu sozio-komunitarioak ezartzea, beren izaera dela eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeak xedeek edo eginkizunek toki eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

- Toki eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.

EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO

VII. PLANA:

Emakundek aurkeztutako VII. Plan honek bi zutabe nagusi ditu:

- Batetik, emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko, nahitaezkoa da legediaren eta politika publikoen bidezko **“Gobernu on”** bat bermatzea. Lehen atalean horri begirako neurriak zehazten dira, beraz.
- Bestetik, hiru ardatz ezberdin bereizten dira, lehentasunez landu beharreko 3 gai nagusi jasotzen dituztenak: **emakumeen ahalduntzea, ekonomiak eta gizarte antolakuntzaren eraldaketa eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.**

“Gobernu onaren” zein 3 ardatz hauen baitan programa edo lan-ildo nagusi batzuk markatzen dira, ondoren dagokigun herriko errealitateari egokitutako helburu estrategiko batzuk markatzeko orientagarriak gerta daitezkeenak. Hondoko taulan zehazten dira Emakunderen VII. Planak jasotzen dituen ardatz edo atal bakoitzeko programak:

		ARDATZAK		
Gobernu ona		Emakumeen ahalduntzea	Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzea	Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak
PROGRAMAK	Konpromiso politikoa	Emakumeen ahalduntze pertsonalari eta kolektiboari laguntzea	Berdintasuna gizarte eta ekonomia eraldatzeko beharrezko balioa dela aitortzea	Sentsibilizazioa eta prebentzioa
	Berdintasunerako trebakuntza	Emakumeen ahalduntze sozialari eta politikoari laguntzea	Emakumeen autonomia ekonomikoa	Detekzioa, arreta eta berroneratzea
	Genero ikuspegia lan prozeduretan		Zaintza-lanen ekonomia feminista	Erakundeen arteko koordinazioa
	Koordinazioa eta elkarlana			
	Parte-hartzea eta eragina			

3. PLANA GARATZEKO METODOLOGIA

II. Berdintasun Planaren diseinua garatzeko baliatu den prozesuaren metodologiari dagokionez, **partaidetza eta emakumeen ahalduntzea erdigunean jarri nahi izan duen prozesua** izatea lehenetsi da, jarraian zerrendatzen diren printzipio edo mugarriak jarraiki.

Horrez gain, badira ere **Berdintasun Plan** batek **jarraitu edo bete behar dituen beste printzipio batzuk** ere.

3.1. Emakumeen ahalduntzea erdigunean duen partaidetza prozesuaren PRINTZIPIOAK:

Jarraian jasotzen dira prozesu honen printzipioak:

- **Partaidetza:** Parte-hartzea ez da informazioa eman eta iritzia eskatzera mugatzea. Izan ere, benetako parte-hartzea gauzak ezagutu, elkarrekin landu, aztertu eta denon artean zerbait sortzean gertatzen da. Uneko errealitatea aldatzeko baldintza subjektiboak eta objektiboak sortu behar dira, eta horretarako, bidea lan-prozesua bera izango da.
Bestalde, ahalegin berezia egin behar da parte-hartzea ahalik eta zabalena izan dadin, eta egituratuta edo antolatuta dauden emakumeetatik harago joan dadin zein intersektionalitatearen lanketa integratu dezan. Horretarako, bitartekoak jarri eta kanalak sustatzea ezinbestekoa da.
- **Komunikazioa:** Komunikazioa arrakastarako gakoa da horrelako egitasmoetan. Komunikazioa beharrezkoa da uneoro, prozesua abiatu aurretik, prozesuak irauten duen bitartean eta prozesua amaitutakoan, besteak beste, emakumeei asmoen berri emateko, prozesuan parte har dezaten gonbidapena egiteko, prozesuaren eta emaitzen berri emateko, etab. Parte hartze prozesuak diseinatzen direnean, behar-beharrezkoa da, beraz, prozesu horien komunikazioa diseinatu eta garatzea.
Komunikazioa ez da aparte doan eremu bat, baizik eta atal hau ere prozesu parte hartzailearen baitan ulertu behar da. Bide batez, egitura guztiek izango dute euren lana komunikatzearen ardura, guztiak egongo dira inplikaturik eta komunikazioa bideratzeko ardura izango dute.

- **Malgutasuna:** Prozesuaren oinarria pertsonak dira. Horrenbestez, pertsonekin lan egitean oinarritzen denean prozesua, aurreikusitako lanak eta epeak moldagarriak izan behar dute. Prozesua abiatu aurretik eta irauten duen bitartean, prozesuaren arduradunek eta parte-hartzaileek beharrezkotzat jotzen dituzten aldaketak proposatu behar dituzte eta, egokitzat jotzen diren neurrian, prozesuan zehar doiketak egin beharko dira.
- **Hezkuntza - prozesua:** Emaitzez gain, prozesuak berak protagonismo berezia izan behar du. Horrek esan nahi du, emaitza ez ezik, prozesuaren xedek ere izan behar duela bertan parte hartzen dutenek (norbanako, talde eta erakundeek) prozesuan ikastea, ezagutza elkarrengandik jasotzea eta elikatzea, elkarrekin elkarbanatuz. Partaidetza-prozesu batek eraldaketa eta hobekuntza prozesu bat izan behar du.
- **Subjektibitatea:** Prozesuaren ardatza emakumeak dira eta, horregatik, pertsonen sentimenduek, bizipenek eta pertsonen arteko harremanek pisu nabarmena dute prozesuaren urrats guztietan; besteak beste, egitasmoaren partaide diren kideen arteko ezagutza eta konfiantza landu behar dira, beraien arteko giroa ona izan dadin eragiteko. Bilerak dinamikoak izan behar dira, eta ondo pasatzeko helburua ere barne hartu behar dute. Honela, prozesua bizipen positibo eta aberasgarria izatea ere lortuko baita.
Eraldaketa prozesua arrakastatsua izateko, beharrezkoa da jarrerak aldatzea eta norbanako bakoitzaren alderdi "pertsonala" ukitzea, hots, subjektibitatea lantzea. Modu berean, eraikuntza kolektiboa egiteko ere ezinbestekoa da. Subjektibitateak oso lotuta daude emakumea izateko modu ezberdinekin, identitate aniztasunarekin eta bizitzeko modu ezberdinekin.
- **Ahalduntzailea:** Prozesuek batzuetan emaitzak baino garrantzia gehiago dute, hau da, prozesuak berak egiten zaitu emaitza baten parte. Beraz, proiektu honen urrats guztiek parte hartzen duten emakumeak jabetzeko helburua izan behar dute. Jabetzeaz hitz egiten dugunean ez gara ari soilik dituzten desabantailaz eta honen aurrean tresnak sortzeaz, baizik eta edozein espaziotan eta egoeretan eman daitezkeen botere harremanez jabetzeaz, baita berdinen artean ere.

3.2. Berdintasun Planek bete beharreko **BESTE PRINTZIPIO GIDARI batzuk:**

Bestetik, badira beste printzipio gidari batzuk, ez zaizkienak hainbeste atxikitzen partaidetza prozesuei, baina Berdintasun Plan bat garatzean kontuan eduki behar direnak.

- **Errealista izatea:** Plan bat diseinatzerako garaian, kontuan izan behar dugu, bere helburua ez dela txosten huts bat izatea, baizik eta, lehen aipatu moduan, berdintasunaren aldeko lana sistematizatzea ahalbidetuko duen eta gure lana erraztu zein bideratuko duen tresna bat dela.

Ondorioz, bere helburua aplikatu behar dutenen lana erraztea bada, subjektu hauen ezaugarrietara egokitu beharko du, tresna erabilgarria izateko, eta horrez gain, aplikatuko den edo eraldatu behar duen errealitatera ere egokitu beharko du, eraginkorra izateko.

Guzti horri deitzen diogu plan errealista izatea, bere ingurura egokitzen delako eta horrek, "gauzagarria" egiten duelako.

- **Konpromisoa jasotzen duena:** Bestetik, Berdintasun Plan baten eraginkortasuna eta gutxieneko arrakasta bat lortzeko, beharrezkoa da plan hau aurrera eraman eta bete behar dutenen konpromisoa jasotzea. Planarekiko konpromiso maila bat bermatzea ezinbestekoa litzateke, eta ondorioz, plana bera, konpromiso horiek lortzera begira ere eraiki beharko da, neurri batean behintzat (nahiz eta ez den hori izango planaren helburu nagusia).

- **Herritar guztientzako:** Planak dagokion errealitatean, hau da, Segurako herrian eta bertako herritarrengan eragiteko helburua du, eta hargatik, herritar guzti horiengana iristea bilatu behar du. Horretarako, batez ere herriko emakume ezberdinen beharra, ezaugarriak, egoerak eta interesak bildu eta kontuan izan behar ditu. Planean jasoko diren ekintzek ere aniztasun hau jasoko dute.

Hala ere, emakumez gain, gainerako herritarrengan eragiteko helburua ere izango du planak, eta hargatik, guztien parte hartzea edo inplikazioa bilatuko dituen plana izan behar du. Horretarako, herriko subjektu eta eragile ezberdinei zuzenduko zaizkien ekintzak planteatuko ditu.

- **Zerbitzu eta baliabideak egonkortuko dituena:** Horrez gain, planean jasotzen diren helburu eta ekintzen bidez, udal esparru ezberdinetatik luzatzen diren zerbitzu eta baliabideak egonkortzea ere lortzen da, berdintasunaren bidean. Horretarako, proposamen berriak edo lehendik dauden zerbitzu eta baliabideak optimizatzeari begirako ekintzak tartekatu izan dira.
- **Plan ebaluagarria:** Azkenik, burututako plana ebaluatzea ere ezinbestekoa izango da (l. Berdintasun Planarekin jada egin den moduan), praktikan, planaren eraginkortasuna zenbaterainokoa izan den aztertu eta aurrera begira kontuan izateko iradokizunak identifikatzeko.

4. PLANA GARATZEKO LAN PROZESUA

Atal honetan zehazten dira, burutu den Segurako II. Berdintasun Planaren diseinurako lan-prozesuak bete dituen fase, urrats eta ekintza ezberdinak.

II. Plana diseinatzeko prozesuan I. Berdintasun Planaren ebaluaketatik jasotakoa izan dugu oinarri. Horrez gain, II. Planaren diseinu honetan berebiziko garrantzia izan du plana egitearen prozesuak berak. Hau horrela izanik, partaidetzako prozesu bat izatea bilatu da, printzipioetan aipatu ditugun “errealismoa” eta “konpromisoa” benetan gauzatzea izan delarik helburu. Gainera, lan prozesua sentsibilizatzeko, elkar ezagutzeko eta elkarlanerako sareak sortzeko ere baliatu da.

Segurako II. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana osatzeko prozesuak 4 fase ezberdin izan ditu:

- 1. fasea:** Laiatuz Berdintasuna Bultzatu lan saioak
- 2. fasea:** Kontrastea egin konpromisoak topatzeko lan bilera
- 3. fasea:** Konpromisoen berreztea
- 4. fasea:** Kontsultatu – onartu – aurkeztu

Horrez gain, emakumeen eta batez ere, bereizkeria anizkoitza jasaten dutenen partaidetza sustatzeko mekanismoak ere hartu dira, nahiz eta nahi besteko partaidetzarik ez den lortu (batez ere jatorri anizteta emakumeen kasuan), batek berak ere ez baitu parterik hartu.

1. Fasea: LAIATUZ-BERDINTASUNA BULTZATUZ lan-saioak

Laiatuz lan saioa teknika parte-hartzailearen filosofiarekin jaio zen, eta bere jatorria laiatze jardueratik dator:

“Laiia lurra iraultzeko erabili ohi zen tresna zen. Laiia goldea baino erabilgarriago zen lurra sakonago irauli nahi zen lekuetan, eta laiatzeak talde lanaren beharra zuen” [wikipedia]

Beraz, auzolanaren filosofia eta laiatze ekintzaren ezaugarriak ekarri nahi izan ditugu plan honetara, gaur egun Seguran emakumeen eta gizonen arteko egoera iraultzeko talde lana ezinbestekoa baita. Saio hau politikoekin, udal teknikari/langileekin eta herritarrekin burutu da eta bere helburua I.go planaren ebaluaketatik ateratako ondorioetatik planaren diseinurako lehen hurbilketa burutzea izan da. Saio hauek hiru helburu nagusi izan dituzte:

- Ebaluaketa publikoki aurkeztu eta ateratako ondorioak ezagutzera ematea.
- Berdintasunaren inguruko herritarren, politikarien eta udal teknikari/langileen lehentasun, kezka eta proposamenak jasotzea.
- Denen artean diseinatuko den II.Planean ardurak hartzea.

Bi lan-saio burutu dira:

1. Ordezkarri politikoekin egin den lan-saioa:

Ebaluaketaren emaitzak ezagutzera eman ondoren, emaitza hauen irakurketa kolektibo eta partekatutik abiatuta Planaren helburuen eta ekintzen inguruan eztabaidatu eta erabakiak hartzeko ariketa burutu da. Horrez gainera, Planaren inplementaziorako markoa eta jarraipen egiturak zehaztu eta arloz arlo genero ikuspegia txertatzeko neurri konkretuak hartu dira.

Partehartzaileak:

- Eñaut Telleria Urkia (Alkatea).
- Eluska Gerriko Fariñas (Zinegotzia).
- Ekhi Albizu Telleria (Zinegotzia).
- Eider Murgiondo Mugika (Zinegotzia).
- Aimar Balerdi Aierbe (Zinegotzia).

2. Udal teknikari/langileekin eta herriko eragileekin egin den lan-saioa:

Ordezkaritza politikoaren saioan egin den moduan, ebaluaketaren emaitzak sozializatuz irakurketa kolektibo eta partekatua oinarritzat hartu da Planaren helburu eta ekintzen inguruan hausnartu eta erabakiak hartzeko, bakoitzak bere espaziotik Seguran Emakume eta Gizonen Berdintasuna bultzatzeko egin dezakeenaren inguruko konpromisoak hartzea bideratu delarik.

Partehartzaileak:

Udal teknikari/langileak:

- *Administrazio orokorra* - Mari Karmen Izeta Erauskin
- *Idazkari-kontu hartzailea* - Iñaki Alonso Antolin
- *Gizarte Zerbitzuak* - Begoña Olarte Garmendia
- *Kultura eta turismoa* - Iosune Arrondo Areizaga
- *Gaztelekua* - Edurne Lujanbio Urbizu

Herriko eragileak:

- Haitz Lehor Guraso Elkartea.
- Tobera Musika Eskola.
- Segurako Kirol Elkartea.
- Goierriko Futbol Taldea.
- Elorri Kultur Elkartea.
- Plaz Zaharreko Lagunak.
- Hitz edo Irri Euskaraz Ekarri Elkartea.
- Azpilla Dantza Taldea.

Bi Laiatuz saioetan jasotakoarekin **Segurako II. Berdintasun Planaren lehen zirriborroa** osatu da. Aurrerago Planean jaso diren helburuak betetzeko dokumentu ulergarri, erabilgarri eta erakargarri bat egiteko esfortzua burutu da. Segurako II. Planak Emakundeko VII. Planaren oinarriak jarraituko ditu eta ondorengo atalak izango ditu:

- Diagnostikoa eta egoeraren analisia.
- Helburuak eta ekintzak.
- Arduradunak.
- Indikatzaileak.
- Kronograma.

- Aurrekontua.
- Kudeaketarako sistema eta egitura.
- Ebaluaketarako sistema eta egitura.

Behin egitura definituta, planaren atal bakoitza landu da zehaztasunez. Planaren edukiak ere Emakundeko VII. Planaren ardatzen arabekoak izan direlarik (marko normatibo eta egiturazkoaren atalean zehaztu dira zeintzuk diren).

2. Fasea: PLANAREN LEHEN KONTRASTEA ETA KONPROMISOA LANTZEA

Lan bilera hau teknikariei eta politikoei zuzenduta egon da. Bertan bi gai landu dira:

- Planaren lehen zirriborroaren aurkezpena eta kontrastea.
- Planaren inguruko konpromisoen adostea (aurrekontuak, koordinazio egiturak, etab.)

3. Fasea: KONPROMISOAK BERRESTEA

Azken fase hau udal politikariekin egin da soilik. Aurreko saioetan landu denaren inguruko konpromisoak finkatu dira, plana aurrera eramango dela ziurtatzeko.

4. Fasea: KONTSULTA PUBLIKOA – ONARPENA - AURKEZPENA

Azkeneko fase honetan hiru pausu eman dira:

- **Kontsulta publikoa:** plana udaleko web orrian jarri da herritarrek egin behar dituzten alegazio guztiak egiteko aukera emanez. Ez da inolako ekarpenik egon.
- **Emakunderen oniritzia:** planak Emakunderen oniritzia jaso du, proposatzen dituen lan-lerroekin bat egiten duela ziurtatuz.
- Alegazio tarte amaituta, **Plana plenoan onartu** da.
- Plana **publikoki aurkeztu** da. Horretarako, deialdi publiko bat eginez gonbitea luzatu zaie Segurako herritar, talde eta elkarte guztiei.

5. GOBERNU ONA

Segurako udalean emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko pausuak emateko, beharrezkoa da aukera berdintasunerako politikak udaleko arlo guztietatik zeharkakotasunez bultzatzea. “Gobernu Onaren” atala da ikuspegi honen atzean kokatzen den teoria eta hurrengo esanahia du: Prozesu politikoak antolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, neurri politikoak hartzeko orduan zeresana duten aktore guztiek politika, maila eta etapa guztietan sar dezaten genero berdintasun ikuspegia (Europako Kontseilua, 1998).

Atal honen barruan 5 programa nagusi jasotzen ditu Emakunderen VII. Planak:

- I. programa: **Konpromiso politikoa**
- II. programa: **Berdintasunerako trebakuntza**
- III. programa: **Genero ikuspegia lan prozeduretan**
- IV. programa: **Koordinazioa eta elkarlana**
- V. programa: **Parte hartzea eta eragina**

Jarraian, atal honen barnean Segurako errealitaterako, garatutako partaidetza prozesuan zehar identifikatu diren neurri eta ekintza zehatzak biltzen dira. Ekintza bakoitzaren arduraduna(k), epealdia eta aurrekontua ere zehazten dira.

I.go programa: KONPROMISO POLITIKOA

Neurria: BG 1. Berdintasunaren gaiari buruzko berariazko araudia onartzea eta garatzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
BG 1.1.	Segurako Parekidetasunerako II. Plana udal teknikari eta politikarien artean zabaldu eta denentzako lanerako tresna izan dadin lanketa egitea.	Parekidetasuna						...	Planaren kopia kopurua, eta zenbatetan banatu den. Aurkezpen saioa.
BG 1.2.	Segurako Parekidetasunerako II. Plana herriko eragile eta norbanakoen artean zabaldu, herriko berdintasun politiken erreferentzia bilakatuz.	Parekidetasuna Kultura						...	Planaren kopia kopurua, eta zenbatetan banatu den. Aurkezpen saioa.
BG 1.3.	Segurako Parekidetasunerako II. Plana Udalaren web orrian zintzilikatu.	Parekidetasuna Admin. orokorra						...	Dokumentua zintzilikatzea.
Neurria: BG 2. Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea									
Neurria: BG 3. Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak

BG 3.1.	Urteroko plan operatiboak prestatu, planaren ezarpena eta jarraipena hobetzeko.	Parekidetasuna						...	Plan operatiboa bera.
BG 3.2.	Urte hasieran, aurreko urtean egindakoaren ebaluaketa egitea, plan operatiboa eta adierazleak kontutan hartuta.	Parekidetasuna						...	Sistematizatorako herramienta bera. Herramientaren erabilgarritasuna eta balorazioa.
Neurria: BG 4. Berdintasunerako organo eta unitate administratiboak sortzea eta indartzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
BG 4.1.	Parekidetasun batzordea, Segurako berdintasunerako politiken ezarpen, jarraipen eta ebaluaziorako organo gisa indartu, horretarako bestelako egiturekin koordinazioa bermatuz.	Parekidetasuna						...	Beste egiturekin koordinazioa bermatzeko sistema sortu eta jarraipena egin.
BG 4.2.	Berdintasun teknikari baten kontrataziorako aukerak ezagutu (erakunde publikoen laguntza...), eta aukera badago, epe luzerako konpromisoa hartu, Udal estrukturan	Parekidetasuna Alkatetza Idazkaria						...	Aukera horiek aztertzeko egindako bilera kopurua eta jasotako ondorioen zerrenda. Ondorio hauetatik erabkiak

	lanpostua txertatuz.								hartzea. Lanpostua udal estrukturan txertatu izana (hala erabakiz gero).
BG 4.3.	Parekidetasun batzordea Segurako berdintasun politikak aurrera eramateko espazio erreferente moduan difusioa egin, batez ere herriko eragile eta norbanakoei begira. Horretarako, besteak beste, planaren aurkezpenaz arduratuko da.	Parekidetasuna						...	Difusio lan hauek gauzatzea eta horretarako erabilitako euskarriak. Planaren aurkezpena batzorde honek burutzea.
BG 4.4.	Aurreko ekintzak aipatzen duen erreferentzialtasun horretatik, espazioa eragile berriei (gazteei, adinduei, jatorri anitzetakoei...) zabaltzeko hausnarketa egingo da. Horretarako, eragile estrategikoez osaturiko prozesu bat egingo da, eragile berriak erakartzeko estrategiak pentsatze aldera.	Parekidetasuna Herriko eragile estrategikoak						...	Eragile estrategikoekin burututako prozesuan garatutako saio kopurua. Saio hauetan parte hartutako eragile eta pertsonen kopurua eta perfila. Saio hauetatik identifikatutako estrategien zerrenda eta hauek martxan jartzea.

II. programa: BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA

Neurria: BG 5. Erakunde publikoetako langile guztiak prestatzea, baita politikariak ere									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
BG 5.1.	Gipuzkoako Foru Aldunditik antolatzen diren Berdinbidean programaren markoan egiten diren prestakuntza saioetan parte hartzen jarraitu, politikari eta udal langileen partaidetza handituz.	Parekidetasuna Udal langile eta politikariak							Berdinbidean programaren baitan parte hartutako prestakuntza saio kopurua eta landutako gaiak. Saio hauetan parte hartutako pertsonen kopurua generoaren arabera.
BG 5.2.	Parekidetasun batzordeak, Udalbatzak, nahiz udal langileek detektatu ahal dituzten prestakuntza beharrei erantzunez, urtero formakuntza saio bat antolatu eta partaidetza masiboa bermatzea. Proposamenak: aurrekontuak eta genero-ikuspegia.	Parekidetasuna Udal langile eta politikariak						300 €	Urtero formakuntza saio bat antolatu izana eta bertan landutako gaia. Bertan parte hartutako pertsonen kopurua generoaren arabera.

III. programa: GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN

Neurria: BG 6. Estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
BG 6.1.	Udaleko agirietan datuak beti sexuaren arabera banatuta jasotzen direla ziurtatu.	Admin. Orokorra						...	Udaleko agirien zerrenda. Datuak sexuaren arabera jasotzen dituzten agiri kopurua.
Neurria: BG 7. Enplegu publikora sartzeko eta bertan gora egiteko hautaketa-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
BG 7.1.	Enplegu publikora sartzeko eta bertan gora egiteko hautaketa prozesuetan, berdintasunari buruzko edukiak sartzea.	Parekidetasuna Alkatetza Admin. Orokorra						...	Hautaketa prozesu kopurua guztira. Berdintasunari buruzko edukiak dituzten hautaketa prozesu kopurua.
Neurria: BG 8. Komunikazioan berdintasuna txertatzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak

BG 8.1.	Udaleko komunikazio-elementuetan hizkuntza ez-sexistaren erabilera bermatzen jarraitzeari begira, batez ere udal langileek izan ditzaketen zailtasunei aurre egiteko aholkularitza emango zaie, gida ezberdinetarako sarbidea eskainiko zaielarik.	Parekidetasuna						...	Identifikatutako zailtasunen zerrenda eta hauei erantzuteko emandako aholkularitzaren nolakotasunak. Gida ezberdinetarako eskainitako sarbideen zerrenda.
BG 8.2.	Diru-laguntzen justifikaziorako txostenaz baliatu herriko talde eta elkarteek zabaltzen dituzten komunikaziorako euskarrietan hizkuntza edota irudi sexistaren erabilera egiten duten aztertzeke. Beharrezkotzat jotzen bada, berdintasun irizpideak jasotzen dituen gida helaraziko zaie, erabiltzeko gonbitea luzatuz.	Parekidetasuna Diru laguntzen arduraduna						...	Diru-laguntzen justifikaziorako txostenean komunikazio ez-sexistaren jarraipena eta azterketa egitea. Jasotako ondorioen zerrenda eta balorazioa. Berdintasun irizpideak jasotzen dituen gida (behar bada).
Neurria: BG 9. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea									
Neurria: BG 10. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea									
	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak

BG 10.1.	Udaleko langile eta politikariei aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeak duen garrantziaren inguruan hausnarketa egin. Horretarako prestakuntza saioez baliatuko da.	Parekidetasuna Udal langile eta politikariak						500 €	Burututako prestakuntza saio kopurua. Bertan parte hartutako udal langile eta politikari kopurua generoaren arabera.
Neurria: BG 11. Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako planetan									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
BG 11.1.	Udaletik garatzen diren edota Udala partaide den planetan genero-ikuspegia txertatu, edo txertatu dadin aholkatuko da.	Parekidetasuna Admin. Orokorra						...	Udaletik garatzen diren edo Udala partaide den plan kopurua. Genero ikuspegia txertatutako plan kopurua.
Neurria: BG 12. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
BG 12.1.	Ordenantza orokorrean genero irizpideak sartuta mantentzen direla bermatu, kanpo kontratazioetan, baita diru-laguntzetan ere.	Parekidetasuna Admin. Orokorra						...	Genero irizpideen zerrenda. Genero irizpideak kontuan izaten direlako bermatzeko jarraipen

									sistema.
BG 12.2.	Udaletik herriko elkarte eta taldeen jardunetarako ematen diren diru-laguntzen justifikazioetan genero ikuspegia txertatzen den ikusi eta egiten dena baloratzeko jarraipena egin (memoria eskatu).	Parekidetasuna Kultura eta turismo teknikaria						...	Diru laguntzen justifikaziorako txostenetan genero ikuspegia txertatzen den aztertzea. Memoriak eskatzea egiten dena genero ikuspegitik aztertzeko. Jasotako ondorioen zerrenda eta balorazioa.
BG 12.3.	Diru-laguntza horietan jasotakoarekin Udalak jardun honen bitartez lortzen duen genero inpaktuaren inguruko hausnarketa egingo da.	Parekidetasuna Alkatetza Kultura eta turismo teknikaria						...	Genero inpaktu horren inguruan hausnartzeko egindako prozesua edo saioak. Hausnarketa horretatik ateratako ondorioak eta balorazioa.
BG 12.4.	Kulturako diru-laguntzak ematean, elkarteek proposatutako ekintzek Parekidetasunerako II. Planaren helbururen batekin lotura izan dezaten aholkatzea, puntuagarri izateaz gainera.	Parekidetasuna Kultura						...	Aholku hori ematea edo komunikatzea Kultura sailetik. Puntuagarria izateko sistema sortzea diru-laguntzetan.

IV. programa: KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA

Neurria: BG13 Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
BG 13.1.	Herriko elkarte eta taldeei beren jardunean genero ikuspegia txertatzen laguntzeko aholkularitza saioa antolatu.	Parekidetasuna Kultura						500 €	Udalbatzako gai-orden eta akten jasotzea. Parekidetasun batzordekoen eta Udalbatza partaideen balorazioa.

V. programa: PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA

Neurria: BG14 Emakumeek eta gizonen zuzendaritza-organo eta/edo pluripertsonaletan ordezkariak izatea bermatzea									
Neurria: BG15 Kontsultarako eta parte hartzeko guneetan genero-ikuspegia sartzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
GB15.1	Partaidetzako prozesuak gidatzeko kanpo kontratazio bat egiten denean genero ikuspegia txertatzen dutela	Parekidetasuna Admin. Orokorra						...	Partaidetzako prozesu kopurua. Genero ikuspuntua bermatu den

	bermatzea.								prozesu kopurua.
GB15.2	Partaidetzazko prozesuetan parekidetasun/feminismo arloan diharduten talde edota norbanakoek parte hartzen dutela bermatu.	Parekidetasuna						...	Abian jarri den partaidetza prozesu kopurua. Eragile hauen partaidetza izan duen prozesu kopurua.

6. I.GO ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Ahalduntzeak “boterea eskuratzea” esan nahi du, eta beraz, prozesu bat litzateke non emakumeek beren posizio eta presentzia indartzen duten bizitzako esparru ezberdinetan, indibidualki zein kolektiboki. Marcela Lagarde y de los Ríos antropologoaren hitzetan, emakume bakoitzak besteentzat aritzeari uzten dionean ematen da: besteen, historiaren, politikaren eta kulturaren objektu izatetik protagonista izatera pasatzen denean, bere bizitzaren subjektu bihurtuz.

Berdintasunerako VII. Planak argi uzten du ahalduntze honen beharra ezinbestekoa dela gizartean dauden desorekak apurtzeko eta NBE-ri egiten dio erreferentzia: NBE Emakumeak erakundeak esaten duenez, alderdi horietako bat ere ezin da hobetu emakumeak ahaldundu gabe, hau da, ahalduntzea betekizun eta berme bat da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde munduan egin behar den eraldaketa sozialerako (EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana).

Ardatz honen barruan bi programa nagusi planteatzen ditu Emakunderen txostenak:

- **Emakumeen ahalduntze pertsonalari eta kolektiboari laguntzea:**
 - o Batetik, emakumeen autonomia, autoestimua eta autozaintza garatzen lagundu nahi da programa honen bidez, giza garapen iraunkorreak emakumeek eta feminismoak duten rola aitortuz, emakumeengan genero-kontzientzia sortuz eta emakumeen ongizate indibiduala eta osasuna hobetuz, Emakunderen VII. Planaren arabera.
 - o Bestetik, emakumeak gizarte-kategoria bat direnez beren eskubideekin, eta biztanleriaren erdia osatzen dutenez, baliabide eta zerbitzuen hobekuntza zein eraldaketa sustatzen dira, eskuragarriak izan daitezen eta emakume guztien beharrei erantzun diezaieten, beti ere euren aniztasuna aintzat hartuta.
- **Emakumeen ahalduntze sozialari eta politikoari laguntzea:** Programa honen bidez, eremu publikoetatik berdintasuna sustatzea bultzatzen da, eremu horietan emakumeen partaidetza sustatuz. Partaidetza hau, berdintasunaren lorpenean

benetako eragina izango duen benetako parte hartze bat izatea bilatzen da emakumeek presentzia hutsa baino zerbait gehiago izan dezaten bitza sozialean eta politikoan.

Jarraian, bi atal nagusi hauen baitan Segurako errealitaterako identifikatu diren neurri eta ekintzak jasotzen dira.

1. programa: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA

Helburua: 1.1 Giza garapen jasangarrirako emakumeek eta feminismoak duten zereginaren onarpena sustatzea

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
1.1.1.	Berdintasunaren arloko gizarte-aurrerapenean emakumeek eta feminismoak egindako ekarpenak ikustarazteko ariketa: Udal-liburutegian, 3 hilez behin, erreferente izan den emakume baten argazki eta biografia, edo feminismitik eskubideen lorpenean garrantzitsu izan diren hitoak jasotzen dituen kartel bat jarriko da toki ikusgarri batean.	Parekidetasuna Liburuzaina Gaztelekua eta eskola						300 €	Udal liburutegian ezarritako euskarri kopurua. Ezarri diren maiztasuna. Ezarri denaren ezaugarriak: argazkiak, biografiak... Hurbildutako herritar kopurua edo izandako harrera.
1.1.2.	Aurreko ekintzan lantzen den emakumearen biografia Gaztelekuan aurkeztuko da, gazteei ezagutzera emateko. Bide batez, herriko neska-mutilek gizartearenganako ikuspegi kritiko bat bereganatu dezaten lanketa egingo da.	Parekidetasuna Gaztelekua eta eskola						...	Gazteekin burututako aurkezpen saio kopurua eta zer aurkeztu den. Bertan parte hartutako gazteen kopurua generoaren arabera.

1.1.3.	Aurrera begira, kartel hauen prestaketa gazteek hartuko dute bere gain, eskolatik edo gaztelekutik kudeatuta.	Parekidetasuna Gaztelekua eta eskola					...	Kartel hauek prestatzeko kudeaketa lanen ardura eskolak edo gaztelekuak hartu izana. Gazteek prestatutako kartel kopurua eta ezaugarriak.
1.1.4.	Liburutegiko Txoko Feminista elikatzen jarraitzea.	Parekidetasuna Liburuzaina					...	Jarraipen bat egitea, ematen zaion erabilera zein den ezagutzeko. Balorazio bat egitea, ematen zaion erabileraren inguruan.
1.1.5.	Liburu azokan emakume sortzaileen partaidetza bultzatuko da, baita parekidetasun/feminismo gaiak jorratzen dituzten liburuak ekarriko dira.	Parekidetasuna Kultura					300 €	Liburu azokako partaideen kopurua. Liburu azokako emakume sortzaile partaideen kopurua. Liburu azokan txertatutako parekidetasun/feminismo gaien liburu kopurua.

1.1.6.	Urtean zehar herriaren dinamikan berdintasunaren bidean garrantzitsuak izan diren emakume/eragileak omenduko dira herriko jaietako pregoian parte hartu dezaten gonbitea luzatuz.	Parekidetasuna Jai Batzordea						...	Jai Batzordean ekintza hau aurkeztea. Gonbitea luzatzeko identifikatutako emakume/eragileen zerrenda. Herriko jaietako pregoian parte hartu duten emakume/eragileak.
Helburua: 1.2 Emakumeen genero-kontzientzia, autoestimua eta autonomia garatzeko laguntza ematea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
1.2.1	Martxoaren 8ari begira, egiten den programazioaren barne, EHko mugimendu feministak proposatzen dituen gai ezberdinen inguruan hitzaldi/lanketa/bideoforum-ak antolatu. Urte bakoitzeko gai bat aukeratu eta saiatu urte horretako bestelako ekintzen bitartez lanketa horretan sakontzen (esaterako, bizitzak erdigunean jartzea, prekarietatea...).	Parekidetasuna Parekidetasun batzordea						1000 €	Antolatutako hitzaldi/lanketa/bideoforum kopurua eta bertan landutako gaiak. Hauetan parte hartutako pertsonen kopurua eta perfila.

1.2.2.	Jatorri aniztetako segurar guztiei (emakume nahiz gizon) bideratutako tailerrak antolatzea, herritartasun- eskubideen ingurukoa, zeharka genero- ikuspegia txertatuta izango duena, jatorri aniztetako emakumeek parte hartzeko erraztasunak izan ditzaten. Deialdian ez da genero kontuen inguruko ezer esango. Esaterako, atzerriko tituluen homologazioaren inguruko tailerra izan daiteke, "Bidez Bide" elkarteak eskainia.	Parekidetasuna Gizarte Zerbitzuak						300 €	Antolatutako tailer kopurua eta gaia. Bertan parte hartutako pertsona kopurua generoaren eta jatorriaren arabera. Tailer hauen inguruan egindako balorazioa.
Helburua: 1.3 Autozainketa eta osasuna sustatzea adin guztietako emakumeengan									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
1.3.1	Emakume zaintzaileen zaintza beharrak kontutan hartuz, auto-laguntza taldea antolatzea. Aztertu Sendian programaren egokitasuna. Atentzio berezia jarriko da erregulatu gabeko lanpostuak betetzen dituztenengana iristeko, indarkeriak bereziki kolpatzen dituen kolektiboa	Parekidetasuna Gizarte Zerbitzuak						...	Auto-laguntza taldea sortzeko saiakeran jarraitutako urratsak. Bertan topatutako zailtasunen identifikazioa (baldin baleude). Auto-laguntza taldea bera sortzea. Talde honetan parte hartzen

	izateagatik.								du ten emakumeen kopurua eta perfila.
1.3.2.	Lilatonean parte hartzeko kanpaina indartzea, norbere buruaren zaintzeko ohitura eta emakumeen arteko hartu- emana bultzatuz.	Parekidetasuna Kirolak						...	Kanpaina indartzeko abian jarritako mekanismoak eta egindako balorazioa: komunikazioa areagotzea herrian, esaterako.
Helburua: 1.4 Baliabideak hobetzea, halako moldez non emakume guztien askotariko egoerek, esperientziek eta premiek beren aldaketan eragin dezaten, bereziki desberdinkeria handienak dituzten baliabide horietan									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
1.4.1.	Udaletik eskaintzen diren baliabide eta zerbitzuak baztertze egoeran dauden emakumeen beharretara hobeto egokitzeko behar dena baloratu eta martxan jartzea.	Parekidetasuna Gizarte Zerbitzuak						...	Zer behar den baloratzeko egindako saio kopurua. Saio hauetan parte hartutako pertsona kopurua generoaren arabera. Saio hauetatik identifikatutako behar/tresnen zerrenda eta hauek martxan jartzeko sistema.

2. programa: EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA

Helburua: 2.1 Gizarte – eta herri – mugimenduetatik berdintasuna sustatzea

Helburua: 2.2 Emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
2.2.1	Herriari begira egiten diren ekintzetan, Udala ordezkatu behar denean, presentzia parekidea izango dela bermatu.	Parekidetasuna						...	Udala ordezkatu den aldi kopurua herrian. Ordezkapen hau parekidea izan den aldi kopurua.
2.2.2.	Kirol instalakuntzen erabileraren inguruko azterketa bat egitea, sexuaren eta adinaren araberakoa, desorekak orekatzera bideratutako neurriak hartzeko.	Parekidetasuna Kirola						...	Sexuaren eta adinaren araberako azterketa hori gauzatzeko ezarritako urratsen zerrenda eta hauek betetzea. Azterketa honetatik ateratako ondorioen zerrenda eta hartu beharreko neurrien identifikazioa.

2.2.3.	<p>Herrian antolatzen diren kirol-ekintzen partaidetzaren analisitik abiatuta, banaketa horrekin hausten lagunduko duten ekintzak programatzea.</p> <p>Esaterako, emakume korrikalarien talde bat antolatzea.</p> <p>Lilatoi taldea baliatu eta hau egonkortzeko mekanismoak bilatu (entrenatzaile baten figura, esaterako).</p>	<p>Parekidetasuna</p> <p>Kirola</p>						...	<p>Kirol ekintzen partaidetzaren analisia burutzea, genero ikuspegitik.</p> <p>Banaketa hori hausteko identifikatutako ekintza posibleak.</p> <p>Aurrera eramandako ekintzak eta hauen balorazioa.</p>
2.2.6.	<p>Jaien antolaketan emakumeen partaidetza aktiboa bultzatu.</p>	Jai batzordea						...	<p>Partaidetza bultzatzeko egin litezkeen ekintza posibleen zerrenda.</p> <p>Aurrera eramandako ekintzak.</p>
Helburua: 2.3 Erabaki – eta zuzendaritza-eremuetan - emakumeen presentzia eta eragina handitzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak

7. II. ARDATZA: EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEA

Bigarren ardatz honetan egituretan oinarritutako eraldaketa bat ematea bilatzen da. Norbere bizitza, lan produktiboa eta bizitzari eusteko lanetan ematen diren desorekak irauli eta erantzunkidetasuna sustatzea da helburua.

Hiru eremutan eragiteko beharra azpimarratzen da VII. Planean, ekonomiak eraldatu eta eskubide ekonomiko eta sozialak bermatu ahal izateko: emakumeentzako lan-duinean, genero ikuspegia duten gizarte politiketan eta eskubideetan oinarritutako politika makroekonomikoetan. Ondorioz, hiru programa ezberdin bereizten dira:

- **Berdintasuna gizartea eta ekonomia eraldatzeko beharrezko balioa dela aitortzea:** programa honen bidez, berdintasuna sustatzen da, jendarteak aurrera egin eta garatzeko balio gisa. Balio hori emakumeak eskubideak dituzten pertsonak direla onartzetik abiatzen da, eta balio hori ezarri egin behar da, hezkidetzaren baten bidez eta prozesu horretan instituzioak, erakundeak eta gizarte osoa erantzunkide izango direla.
- **Emakumeen autonomia ekonomikoa:** programa honen helburua emakumeen autonomia ekonomikoa sustatzea da. Horretarako kalitatezko enpleguak sortu eta pobrezia feminizazioa murriztu behar dira, ezinbestez.
- **Zaintza-lanen ekonomia feminista:** programa honetan, bizitzari eusteko ezinbestekoak diren zaintza lanen ikusgarritasunean eta balioan sakontzen da, bai eta zaintza-lanekiko erantzunkidetasuna bultzatzeko bideetan ere.

Jarraian, hiru programa hauen baitan eta Segurako errealitatera egokituz identifikatu diren neurri eta ekintza zehatzak.

III. programa: BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA

Helburua: 3.1 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gizarte-balioa dela onartzeko laguntza ematea

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
3.1.1	<p>Gizonek berdintasunaren aldeko borroka txertatu edo partaidetza handitzeko hausnarketa-saioak antolatuko dira:</p> <p>Zer egin dezaket gizon bezala? Nola eragin nire ingurune maskulinizatuan? Eragiteko erremientak? Nola harremandu emakume talde eta espazio feministekin? Zeintzuk dira gizonen pribilegioak?</p>	<p>Parekidetasuna</p> <p>Zinegotzi gizonezkoak</p>						600 €	<p>Burututako hausnarketa saio kopurua.</p> <p>Bertan parte hartutako gizonen kopurua eta perfila.</p> <p>Egiten den balorazioa (aurrera begira, gaian sakontzen joateari dagokionez).</p>

Helburua: 3.2 Herritartasun-eskubideak erabiltzea bultzatza, hezkidetzaren bidez

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
3.2.1.	Bizitzan, ikasketetan eta lanean izango duten ibilbidea aukera-aniztasunetik eta genero baldintzapenik gabe	<p>Parekidetasuna</p> <p>Gaztelekua eta</p>							Burututako formazio saio edo sentsibilizazio kanpaina kopurua.

	<p>aukeratzen duten gazteen kopurua handitzea, Gaztelekuan formazio eta sentsibilizazio kanpainak antolatuz.</p> <p>Baloratu InspiraSteam programaren egokitasuna.</p>	eskola						300 €	Bertan parte hartutako gazteen kopurua generoaren arabera.
3.2.2.	<p>Gazteenekin baliatzen ditugun euskarri materialen edukian erreparatzea (liburuak, filmeak, argazkiak...), genero rolen ohiko banaketa gailentzen dituztenak lehenesteko. Diru-laguntzez baliatu honetarako.</p>	<p>Parekidetasuna</p> <p>Gaztelekua eta eskola</p>						...	<p>Diru-laguntzen deialdian genero rolen ohiko banaketa gailentzen duten euskarriak lehenestea.</p> <p>Jarraipen bat egitea, lehenesteko hori jarraitzen dela bermatzeko.</p>

Helburua: 3.3 Antolaketaren eta enpresaren kultura berdintasunaren alde kokatzea

IV. programa: EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA

Helburua: 4.1 Lan gehiago eta hobeak sortzea

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
-------	---------	--------------	------	------	------	------	------	-------------	-------------

4.1.1.	Espezifikoki, jatorri anitzetako emakumeen, eta orokorrean herriko emakumeen, lan-merkaturaketa erraztuko duten formazio tailerrak eman.	Parekidetasuna Gizarte Zerbitzuak						200 €	Antolatutako formazio-saio kopurua. Saio hauetan parte hartutako emakumeen kopurua eta perfila.
4.1.2.	Zainketarekin lotutako enplegu-sorguneak identifikatu eta garatzen laguntzea, sektore honetan kalitatezko enplegua sortzeko aukerak bultzatzeko.	Parekidetasuna Gizarte Zerbitzuak						...	Identifikatutako enplegu-sorguneak. Hauen baitan kalitatezko enpleguak sortzeko aukerak aztertzea eta balorazio bat egitea.
Helburua: 4.2 Pobreziaren feminizazioa murriztea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
4.2.1.	Ezkutuko ekonomian lan egiten duten emakumeen kopurua murrizteko (esaterako, interna modura lan egiten duten zaintzaileak), auto-zaintza taldetik abiatuta (1.3.1 ekintza), estrategia ezberdinetan pentsatzea. Kontuz ibili eta neurtu kanpainak ez ote duten egoera zaugarriengan	Parekidetasuna Gizarte Zerbitzuak						...	Estrategia hauetan pentsatzeko burututako saio kopurua, egoki ikusten diren eragileen artean. Saio hauetatik ateratako ondorio edo estrategien zerrenda.

	daudenak gehiago kaltetzen.								
4.2.2.	Familia zaintzaile bakarrak diren emakumeei arreta berezia edo jarraitua ematea, hauen egoera zaintzeko.	Parekidetasuna Gizarte Zerbitzuak						...	Familia zaintzaile bakarrak diren emakumeen identifikazioa. Hauen egoera modu jarraituan zaintzeko mekanismoak.

V. programa: ZAINKETEN EKONOMIA FEMINISTA

Helburua: 5.1 Zainketa bizitzaren jasagarritasunerako ezinbesteko baldintza dela sozialki onartzea

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
5.1.1.	Saioak antolatzerako orduan, erantzunkidetasunean aurrera egiteko neurri-proposamenak jasotzen dituen zerrenda bat osatu eta herriko eragile ezberdinen artean zabaltzea. Esaterako, haurtzaindegi zerbitzua jartzea, haurrekin joateko aukera ematea...	Parekidetasuna						...	Neurri-proposamenen zerrenda sortzea. Zerrenda hau zabaldu den eragile kopurua.
5.1.2.	Aurreko ekintzan (5.1.1.) jaso diren baliabideak, haurren zaintza errazteko,	Parekidetasuna							Galdeketa bera sortzea.

	nahikoak diren edo beste zein txertatu beharko liratekeen aztertzeko galdeketa bat prestatu eta pasatu. Jasotzen diren erantzunak neurri-proposamenen zerrendari gehitu.							...	Galdeketa hau pasatu den eragileen zerrenda. Jasotzen diren erantzunen zerrenda. Hauetatik, hasierako zerrendari gehitzen zaiozkion proposamen berriak.
5.1.3.	Udalaren zerbitzu sozio-komunitarioen eta bestelako zerbitzuen ordutegi beharren inguruko galdeketa zabaltea.	Parekidetasuna Admin. Orokorra						...	Galdeketa bera sortzea. Gadeketa sortu den udal zerbitzuen zerrenda. Galdeketa pasatu den eragileen zerrenda edo ale kopurua. Jasotako erantzunen zerrenda eta lanketa.
Helburua: 5.2 Ordaindu gabeko zainketa-lanak ikustaraztea eta horien balioa aitortzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
5.2.1.	Ezkutuan dauden eta lan isilak burutzen dituzten emakumeen jarduna aitortu,	Parekidetasuna							Ikusarazteko egindako ekintzen

	balioan jarri eta ikusarazteko ekintzak: aitortza publikoak jaietan, hauen lana ezagutzera emateko kanpaina edo argazki-lehiaketak...							300 €	zerrenda eta ezaugarriak. Ekintza huen antolaketan parte hartu duten eragileen zerrenda. Ekintza hauek herrian izandako harrera aztertu eta balorazio bat egitea.
5.2.2.	Gaztelekura doazen gazteekin bideo baten eraketa, 5.2.1 ekintzari jarraiki, beren inguruan ematen diren zaintza lan ezberdinen ingurukoa. Atentzio berezia jarriko zaio zaintza lan ez profesionalei. Bideoari zabalkundea emango zaio Udalak eskura dituen euskarrien bitartez.	Parekidetasuna Gaztelekua Admin. Orokorra						200 €	Bideoa sortzea. Hau sortzen parte hartu duten gazteen kopurua generoaren arabera. Bideoa zabaldu den udalaren euskarrien zerrenda.
Helburua: 5.3 Zainketen antolakuntza sozial berri bat babestea, horien gaineko ardurak birbanatzeko									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
5.3.1.	Udaletik kontziliazio erantzunkiderako neurriak zehaztu eta bultzatzea, bere langileen artean edo bere eragin-	Parekidetasuna							Zehaztutako neurrien zerrenda. Neurri hauek zabaldutako

	eremuan.	Admin. Orokorra					...	eremuen/eragileen zerrenda.
5.3.2.	Gizonezkoengan erantzunkidetasuna bultzatzeari begira, zaintza lanen gaineko ardura hartzen duten "gizonezko erreferente positiboak" identifikatu eta elkarlan bat saretzea, denen artean eredu hau herrian ikusarazi eta beste gizonezkoengana hel dadin sustatzeko: komunikabideetan edo herrian antolatzen diren ekintzen artean leku bat emanez...	Parekidetasuna					...	Erreferente positiboen identifikazio eta kaptazioa. Hauekin elkarlan bat ezartzeko egindako bilera kopurua. Bilera hauetan adostutako estrategia edo ekintza posibleen zerrenda. Aurrera eramandako ekintzak.
5.3.3.	Herriko eredu urbanistikoari begira, hobekuntzarako proposamenak jaso eta martxan jartzeko bideak bultzatu eta sistematizatzea garrantzitsua izan daiteke.	Parekidetasuna Hirigintza					1000 €	Hobekuntza proposamenak jasotzeko sistema bat sortzea. Jasotako hobekuntza proposamenen zerrenda eta hauen lanketa. Hauek aurrera eraman edo martxan jartzeko sistema bat sortzea.

5.3.4.	Gazteenak eta batez ere mutilak, zaintza-lanei hurbildu eta hauen gaineko ardura hartzea bultzatzeko, elkartruke-harremanak antolatu: esaterako, San Joan egoitzarekin elkarlanean jarrita.	Parekidetasuna Gaztelekua eta eskola						...	Elkartruke-harreman hauek zeintzuk izan daitezkeen identifikatzea. Elkartruke-harreman hauek ezarri eta martxan jartzea.
--------	---	---	--	--	--	--	--	-----	---

8. III. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK

GABEKO BIZITZAK

Azken ardatz honetan, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko herri eta bizitzak lortzeari begirako programa eta helburuak barne-hartzen dira. Emakunderen VII. Planean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean egiten den definizioarekin egiten dute bat, eta baita emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenarekin ere (2011ko maiatzaren 11, Istanbul). Modu honetan, emakumeen aurkako indarkeriatzat hartzen du Emakundeek generoan oinarritutako indarkeria oro, zeinak berekin dakarren edo ekar dezakeen emakumeek kalte edo oinaze fisikoa, sexuala, psikologikoa eta ekonomikoa jasatea, baita mehatxuak, bortxa eta askatasun-gabetze bidegabeak ere, bizitza publikoan edo pribatuan.

Honi aurre egiteko, hiru programa hauek jasotzen dira txostenean:

- **Sentsibilizazioa eta prebentzioa:** programa honen bidez herritarren sentsibilizazioa sustatzea bilatzen da gaiaren inguruan, honek prebentzio lanetan ere laguntzeko, eta horrez gain, esparru guztietan indarkeriaren arloan esku hartzen duten profesionalen etengabeko trebakuntza jasagarria sustatzen jarraitzea, emakumeen ahalduntze pertsonalaren ikuspegia txertatuz. Prebentzioa indartu eta finkatzeko mekanismoak sustatzea ere bilatzen da.
- **Detekzioa, arreta eta berroneratzea:** programa honetan Emakunderen VII. planean jasotzen da arreta emateko sistemaren eskuragarritasuna eta erabilgarritasuna hobetzea, eta horrez gain, arreta emateko sistemari txertatzea norbanakoek eta taldeek kaltearen ordaina jasotzeko eskubidea. Horrez gain, kasuen detekzio edo antzemate goiztiarraren garrantzia ere hor legoke, arreta integrala ematearenarekin batean.
- **Erakundeen arteko koordinazioa:** arreta integrala eskaintzeko beharrezkoen harira, beharrezkoa da arreta honetan esku-hartzen duten eragileen arteko koordinazioa sustatu eta finkatzea. Helburu hori da programa honek biltzen duena.

Jarraian hiru programa hauen baitan Segurarako identifikaturiko neurri eta ekintzak.

6. programa: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

Helburua: 6.1 Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
6.1.1.	A25aren inguruan antolatzen diren ekitaldiekin jarraitzea, eta hauen antolakuntza lanetara eragile berriak erakartzeko mekanismoak sortzea.	Parekidetasuna						...	Antolatzen diren ekintzen eta hauen antolakuntzan diharduten eragileen zerrenda. Txertatu litezkeen eragile berrien eta hauek erakartzeko modu posibleen identifikazioa.
6.1.2.	Sistematikoki eta publikoki, Euskal Herrian gertatzen diren emakumeen aurkako indarkeria kasuak salatu eta herri mailan antolatzen diren ekintzei babes instituzionala eman.	Parekidetasuna Alkatetza						...	Publikoki salatutako indarkeria kasuen kopurua. Babes instituzionala emandako herri mailako ekintzen kopurua.
6.1.3.	Pertsonak sexu objektu huts gisara aurkezten dituzten eduki mediatiko ororen jarraipena egitea, eta behar balitz, publikoki salatzea: batik bat, herritik banatzen diren euskarrietan,	Prekidetasuna Alkatetza						...	Jarraipen hori egiteko sistema bat sortzea. Identifikatutako eduki mediatiko sexisten zerrenda.

	jaietako barraketan...							Hauen aurrean hartutako neurriak.
6.1.4.	Emakumeen aurkako indarkeriaren informazio-trataera zaintzea, emakumeak borroka honetako eragile aktibo gisara aurkeztea bultzatzeko. Irizpide batzuk sortu honetan laguntzeko eta jarraipena egin.	Parekidetasuna					...	Irizpideen zerrenda. Irizpideen jarraipena egiteko sistema.
6.1.5.	Gazteenekin, mikro-matxismoei eta indarkeria matxistaren alderdi ezkutukoenei buruzko maitasun erromantikoaren formazio saioak antolatzea, indarkeria gisara zer ulertzen dugun eta zer ez lantzeko.	Parekidetasuna Gaztelekua eta eskola					500 €	Burututako formazio saio kopurua eta edukia. Bertan parte hartutako gazteen kopurua generoaren arabera.
6.1.6.	Udal espazioak eta komunikazio euskarriak (web-gunea, esaterako) baliatzea indarkeria matxistaren aurkako irudi eta mezu hezigarriak zabaltzeko.	Parekidetasuna Admin. Orokorra					...	Irudi eta mezu hezigarrien zerrenda. Hauek zabalduetako euskarrien zerrenda.

Helburua: 6.2 Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea

Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
6.2.1.	Indarkeria sexistari buruzko eta haren adierazpenei dagokion herri jakintza eta sentsibilitatea sustatzea, halako kasuen aurrean zaintza-sareak sortzeko aukerak zabaltzeko: batez ere, indarkeriaren modu ezkutukoenei (piskologikoa, ekonomikoa...) buruzkoa. A25eko kanpainaz baliatu daiteke honetarako.	Parekidetasuna Gizarte Zerbitzuak						...	Honi begira burutu litezkeen ekintza posibleen zerrenda. Aurrera eramandako ekintzen zerrenda eta balorazioa.
6.2.2.	Indarkeria egoerei aurre egiten ari diren emakumeen arretan dauden eragile ezberdinen sentsibilizazioa, emakumeak ahalduntzearen garrantzia eta gaiarekiko formakuntza bermatzea.	Parekidetasuna Gizarte Zerbitzuak						500 €	Emakumeen arretan dauden eragileen formakuntza beharrak identifikatzea. Hauek asetzeko modu posibleak identifikatzea.
Helburua: 6.3 Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta finkatzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
6.3.1.	Herrian, ikuspegi feminista batetik arriskutsuak kontsideratzen diren	Parekidetasuna							Burututako partaidetza saio

	puntuak detektatzeko partaidetza saio batzuk burutzea herrian, eta hemendik mapa bat sortzea.	Parte hartze batzordea						...	kopurua. Bertan parte hartutako pertsonen kopurua eta perfila. Sortutako mapa.
--	---	------------------------	--	--	--	--	--	-----	--

7. programa: DETEKZIOA, ARRETA ETA BERRONARTZEA

Helburua: 7.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra areagotzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
7.1.1	Autodefentsa Feminista tailerrak antolatzen jarraitzea, Parekidetasun Batzordearen indartze prozesuan erakarri nahi diren herriko eragile berrien partaidetzaz, tailer hauetako asistentzia areagotzeko.	Parekidetasuna						1000 €	Antolatutako autodefentsa feminista tailer kopurua. Bertan parte hartutako emakumeen kopurua eta perfila. Balorazio bat egitea saio hauetako partaidetzaren inguruan.
7.1.2	Herriko emakumeen artean, indarkeria kasuak jasaten direnerako eskura	Parekidetasuna							Arreta telefono eta zerbitzu

	<p>dituzten arreta telefono eta zerbitzuen inguruko informazio egokia bermatzea: arreta berezia jarriz hauek eskuratzeko zailtasun gehiago dituzten kolektiboekiko. Horretarako, udaleko eta udal zerbitzuetako espazioak baliatu litezke.</p> <p>Kasu hauetarako erantzuna ere prestatu beharko litzateke, jarraipena egiteko euskarri bezala.</p>	<p>Gizarte Zerbitzuak</p> <p>Batzordea informazioa zainduz</p>						200 €	<p>posibleen zerrenda.</p> <p>Hauek zabalduetako udal espazioen zerrenda.</p> <p>Telefono eta zerbitzu horien atzean dagoen erantzuna bermatu eta zaintzea.</p>
<p>Helburua: 7.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala bermatzea, ahalduntzearen ikuspegitik, esku-hartze horretan nazioarteko estandarrekin bat eginez</p>									
<p>Helburua: 7.3. Kaltearen erreparazio indibidual eta kolektiborako eskubidea bermatzea</p>									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
7.3.1.	Indarkeria jasan duten emakumeetan ahalduntze prozesuak eta autobabesa sustatzeko lanketak abian jartzea.	<p>Parekidetasuna</p> <p>Gizarte Zerbitzuak</p>						...	<p>Ahalduntzea eta autobabesa sustatzeko ekintza posibleen zerrendatzea: formazioa, kanpainak...</p> <p>Aurrera eramandako ekintzen zerrenda.</p>

8. programa: ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Helburua: 8.1. EAEn emakumeen aurkako indarkeriari heltzen dioten erakundeen arteko esku-hartze koordinatua sustatzea									
Kodea	Ekintza	Arduraduna/k	2019	2020	2021	2022	2023	Aurrekontua	Adierazleak
8.1.1.	Eskualde mailako indarkeria protokoloan parte hartzen jarraitu eta bertako eragileekin mantentzen den harremana eta koordinazioa hobetzeko proposamenak identifikatu udal barnean.	Parekidetasuna Gizarte Zerbitzuak						...	Koordinazioa hobetzeko proposamenak identifikatzeko burututako saio kopurua udal barnean. Identifikatutako proposamenen zerrenda. Aurrera eramandako proposamenen zerrenda.

9. II. BERDINTASUN PLANAREN KUDEAKETA SISTEMA

Azkenik, Segurako II. Berdintasun Planaren jarraipen eta ebaluaziorako arduradunak eta euskarriak jasotzen dira atal honetan. Arduradunei dagokinez, **Parekidetasun zinegotzia** izango da Planaren inplementazioaren arduradun nagusia. Zinegotziak ardura honetan **Parekidetasun Batzordearen** laguntza izango du, herri mailako berdintasun politiken organo nagusia izango delarik.

II. Berdintasun Plana urtero garatuko da programa bakoitzaren Ekintza Planetan finkatuz. Bertan, udalaren arlo bakoitzak urte horretan burutuko dituen ekintzak jasoko dira. Plan hori Parekidetasun Batzordeak prestatuko du, Udalbatzak (udaleko arlo ezberdinek) lagunduta.

Programaz programako ekintza planekin batera, ekintzen jarraipen fitxak eta adierazle ere beteko dira. Fitxa hauek, ekintza bakoitza burutzeko ardura dutenek bete beharko dituzte.

Parekidetasun Batzordeak neurriak eta programak ebaluatuko ditu, egindako aurrerapenaren ikuspegi orokorrago bat izateko.

Azkenik, urtero jasotako datuekin Plan osoa ebaluatuko da, ezarritako neurriak zenbateraino bete dituen aztertze eta Segurako hurrengo Berdintasun Plana moldatzeko behar diren oinarriak finkatzeko.

10. ERANSKINAK

SAIL BAKOITZAREN EKINTZA PLANA (Programa bakoitzarena)

Ekintzaren kodea	Neurria	Arduraduna	Elkarlana beste Sailekin	Aurrekontua	Epea

Ekintzen Betetze Mailaren Ebaluaketa

Ekintza jarraipen fitxa: ekintzaren arduradunek bete behar dute. Amaitutakoan Parekidetasun Batzordeari helarazi behar zaizkio, jarraipena egin dezan.

Ardatza			
Programa			
Neurria			
Ekintzaren kodea eta izena			
Ekintzaren deskribapena			
Arduraduna		Aurrekontua	
Epea			
Jarraipena eta betetze-maila			
Burutzeko arazoak			
Ekintza balorazioa			
Inplikazio eta ondorioak			
Parte hartzea (sexua, adina)	Emakumeak:	Gizonak:	
	Adina:	Adina:	

Adierazleak		

NEURRIEN EBALUAZIOA

Parekidetasun Batzordek betetzeko:

Ardatza	
Programa	
Neurria	
Egindako ekintzen portzentaia	
Planean aurreikusi gabeko ekintzak	
Aurrekontua	

Neurrien ebaluaketa:

- Neurria osorik garatzea lortu da?
- Ze arazo egon dira hau garatzeko?
- Zein izan da parte hartze maila neurri estrategikoa osatzen duten ekintzetan?
- Zenbateraino bete dira hartutako konpromisoak?
- Zer aldaketa gertatu dira edo ze eragin izan dute garatu diren ekintzek herrian?

PROGRAMEN EBALUAZIOA

Parekidetasun Batzordek betetzeko:

Ardatza	
Programa	
Garapen maila	
Programa bakoitzeko neurrien garapen maila	

Programen ebaluaketa:

- Egokiak al dira programa bakoitzaren barnean txertatutako neurriak?
- Zein izan da arlo bakoitzaren konpromiso maila programa bakoitzarekiko?
- Zein arazo egon dira konpromiso hauek betetzeko?
- Egindako ekintzak gizatalde ezberdinei edo perfil ezberdinetako herritarrei zuzendu dira (emakumeak, gizonak, gazteak, adinekoak, migrariak...)?
- Egindako ekintzek onurak ekarri dizkie gizatalde edo perfil jakin bateko herritarrei?
- Herritarren edo herriko eragileen partaidetzarik egon da ekintza hauek betetzerako garaian? Nortzuena?
- Baliabide, zerbitzu edo mekanismo egonkorrik jarri da martxan (koordinaziorako...)?
- Egingarriak dira arduradunei esleitutako lanak?
- Ze arazo egon dira Planaren ebaluazio lanak egiteko?
- Ezarritako ebaluazio metodologia, egokia da?

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

